

## “BAKARDADEAREN IRAULTZA”k kalera gerturatzen du bakardade ez hautatuaren gaia

- *Ikerketen arabera, bakardade ez hautatuak biztanleriaren %13,4ri eragiten dio, eta 3 pertsonatik 2ri aurre egiteko ekintzak egitea gustatuko litzaieke*
- *Kutxa Fundazioak eta Arantzazulabek bultzatutako Hitzetatik Ekintzetara ekimenaren parte da jarduera hau.*
- *2030 Agenda herritarrengana hurbiltzea eta gizartean eragin positiboa sortzeko modu erraz eta erakargarria pertsona guztien eskura jartzea du helburu*

Bakardade ez hautatua askotarikoa da, bizitzako etapa desberdinei, egoera ezberdinei, intentsitate ezberdinei... erasotzen die. Eta horri heltzeko eta erantzuna emateko, komunitateak sare komunitarioak ehundu behar ditu, begirada aukeretan jartzeko, inor kanpoan ez uzteko, gizartearen aniztasunean oinarrituz. Horregatik planteatzen dugu jarduera hau kalean, bistaratzea, esperimintatzea eta KLIK bat egitea, “hitzetatik ekintzara” pasatzeko. Izan ere, zerbaitez jabetzen garenean lortzen dugu benetako aldatzeko gaitasuna.

Estatuko Behatokiak 2023an estatuan bakardade ez hautatuari buruz egindako inkesta baten arabera:

- kalkuluen arabera, pertsonen %13,4k bakardade ez hautatua pairatzen du
- pertsonen %80k uste du bakardadea arazo ikusezina dela
- 3 pertsonatik 2ri gustatuko litzaieke beren inguruan pertsonen bakardadeari aurre egiteko ekintzak egitea

BAKARDADEAREN IRAULTZA, Esperientzia jarduera bat da, ekainaren 4an, goizez, 10:00etatik 13:30era, Donostiako Gipuzkoa Plazan egingo duguna. Bertan, ekintza batzuk garatuko ditugu eta hirigintza taktikoa aplikatuko dugu igarotze espazio bat interakzio espazio batean eraldatzeko. Eta bertan, bakardade ez hautatuaren problematikari buruz sentsibilizatuko dugu, gaiari modu dinamikoa, esperientziatzeko eta interaktiboan helduz.

Elkartu, Gazte Ekoliderrak eta MatiaZaleak elkarrekin diseinatu eta gauzatuko dugu. Eta Algaraklownen presentzia eta dinamizazioa izango ditugu.

BAKARDADEAREN IRAULTZA, Kutxa Fundazioaren eta Arantzazulabek Hitzetatik Ekintzetara programaren sortze-saioretan asmatutako proiektua da, 2030eko Gizarte Agendaren 11. Garapen Jasangarriaren Helburuarekiko konpromiso eko-sozialaren aktibazioa bilatu eta sustatzeko helburuarekin. KLIK hau beste batzuen parte da, aldaketara bideratutako agenda oso baten parte. Sinergiak sortu ditugu, halaBer, presente egongo den beste KLIK batekin.

**Elkartu:** Elkartu Gipuzkoako Ezgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak gizarte inklusibo bat eraikitzen laguntzen du, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatuko duena, aniztasuna onartuz eta aintzat hartuz. Horretarako, hainbat lan-ildo garatzen dira, eta printzipio hauek hartzen dituzte oinarri: inklusioa, berdintasuna, normalizazioa, eskubideen ikuspegia, parte-hartzea, zeharkakotasuna, autoordezkaritza eta elkarrizketa zibila. Lan-ildo horiek irisgarritasun unibertsalean, hezkuntzan, enpleguan edo bizimodu independentearen eremuan garatzen dira. Ezgaitasun fisikoa duten pertsonengan, haien familietan, erakunde publikoetan, erakunde pribatuetan eta, azken batean, gizarte osoan gauzatzen da.

**Gazte Ekoliderrak:** Kutxa Fundaziotik sortuta, Gazte Ekoliderrak jasangarritasunean eta eraldaketarako lidergoan oinarritzen den formakuntza eta bitzta ibilbidea da. 20 eta 35 urte bitarteko

gazteei zuzenduta dago, hauek gizarte eraldaketaren sustatzaile izatera bultzatzeko helburuarekin, aktibista izateko, ekolider bilakatzeko. 6 hilabeteko prozesuan, jasangarritasunaren ikuspegi holistikoa 3 esparrutan lantzen da; TREBATU, IZAN eta EKIN. Gaitegi ezberdin eta anitzen inguruan hitzaldiak, solasaldiak eta elkarrizketak izanaz, lidergo kontzientearen lanketa eta ezagutza paralelo bat bizituaz eta eragile ezberdinen erronka ekosozialak hartuaz, ekintzara pasatzeko akzioen diseinu eta sorkuntzarekin.

**MatiaZaleak:** Matia Fundazioa irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, eta 130 urte baino gehiagoko esperientzia du interes orokorragatik. Erreferentea da Gipuzkoako adineko pertsonen ematen zaien arretan eta zahartzeari buruzko ikerketa nazionalean eta nazioartekoan. Pertsonarengan oinarritutako arretaren printzipioak landuz, helburua da zahartze-prozesuan pertsonen laguntzea, haien ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatzen duten ezagutza eta zerbitzu personalizatuak sortuz. 2016an, MatiaZaleak ekimena jarri zuen abian, Adinekoen eta Pertsona Ezinduen Ongizateari laguntzeko ekimenak abian jartzeaz arduratzen dena, eta Fundazioaren helburua babesten duten pertsona eta erakunde guztiak batzen dituena.

### Hitzetatik Ekintzetara, PROGRAMA KLIK 2024

Kutxa Fundazioak eta Arantzazulabek bultzatzen duten Hitzetatik Ekintzetara proiektuaren barruan kokatzen da jarduera hau. Proiektu berritzaile honek Agenda 2030 gizartera hurbiltzeko eta planteatzen dituen erronketan pertsonak inplikatzeko modu berriak bilatzeko apustua egiten du. Hitzetatik Ekintzetara ekimenaren edizio bakoitzak Garapen Jasangarriko Helburu bat du ardatz. Iaz, proiektuak Zero Goseari (2. GJH) eman zion arreta, eta aurten, berriz, Hiri eta Komunitate Jasangarriari (11. GJH).

Hitzetatik Ekintzetara-k kausan laguntzeko modu erraz, erakargarri eta dibertigarria proposatzen du, hirugarren sektore eko-sozialeko eragileekin lankidetzan garatzen den askotariko jarduera-programa bati esker: KLIK programa. Auziarekin inplikatzeko, proposamen ugarietako batean parte hartzea besterik ez da behar. Aurten, programak 16 jarduera izango ditu maiatzetik ekainera bitartean, lurraldeko hainbat udalerritan.

### Harremanetarako:

- Elkartu
  - mail: [norma@elkartu.org](mailto:norma@elkartu.org)
  - [miren@elkartu.org](mailto:miren@elkartu.org)
  - telefono: (+34) 943 31 67 70
  - móvil: (+34) 652 776 823
- Matia
  - Mail: [silvia.turne@matia.eus](mailto:silvia.turne@matia.eus)
  - Teléfono: (+34) 943 31 71 02
  - Móvil: (+34) 616 112 580